

## **BORONDATE POLITIKOA PRESOEN OSASUNAREN ETA BIZITZAREN ZERBITZUAN**

Covid-19ak sekulako osasun krisia eragin du, eta, pertsonen osasuna babesteko premia dela eta, herrialde guztiek denon bizimodua zeharo aldatu duten erabakiak hartu dituzte. Espetxeen arloan ere, nahiz eta arlo honetan aldaketak eta, are gehiago, aurrerapausoak, beti amaieran iristen diren, erabaki garrantzitsuak hartzen ari dira munduko herrialde askotan. Albisteek diotenez milaka preso askatu dituzte. Estatu askotan neurriak hartu dira kartzelan dauden milaka eta milaka preso aske uzteko. Zoritxarrez, ez da halakorik gertatu Espainiako Estatu Gobernuaren kasuan. Hemen, espetxe politikaren arloan, neurri bakarra hartu da, kartzelak bakartzea alegia, eta horrek ekarri du, praktikan, presoek eta haien gertukoek eta familien arteko komunikazioa murriztea eta bertan behera gelditzea barruko jarduera guztiak, tratamendukoak barne. Neurri horiek atzeratu dezakete birusa kartzelan sartzea, baina ez dira baliagarriak infekzioaren ondorio suntsigarriak ekiditeko birusak espetxeetako hormak zeharkatzea lortzen badu, espetxeetako osasun arretaren defizit egoerak larriagotuta, gainera. Hala gertatzen ari da dagoeneko Estatu Batuetan, non zenbait espetxetan, Chicagon, kasu, barruko kutsatze tasak kanpokoak baino 30 aldiz handiagoak baitira. Espetxeetako errealitatea ezagututa –masifikazioa, higiene baldintza eskasak, beste eritasun batzuen hedapena eta abar–, pentsatzekoa da hemen ere hori gertatuko dela.

Espainiako Estatu 70 erakunde sozial baino gehiagok behin baino gehiagotan eskatu dugu, beste neurri batzuen artean, presoak aska ditzatela, hori delako neurri onena espetxeetan Covid-19aren kutsapenei aurrea hartzeko eta presoek osasunerako nahiz bizitzarako eskubidea bermatzeko. Alde horretatik, Osasunaren Mundu Erakundeak (OMS) eta Europako Kontseiluko Torturaren Prebentziorako Komiteak (CPT) ere eskatu diete estatuei neurriak har ditzatela espetxeen arloan, lehentasuna emanez espetxeetako populazioa nabarmen murrizteari, alternatibak bilatuz askatasuna kentzeko zigorreari eta kartzelatik ateraz ezaugarri zehatz batzuk dituzten presoak, besteak beste, arrisku txikiko profilak dituztenak, Covid-19aren aurrean bereziki ahulak direnak, eritasun larriak dituztenak, adinekoak, haurdun dauden emakumeak eta beren ardurapean seme-alabak dituztenak eta abar. Horrez gain, Europako Giza Eskubideen gaietarako komisarioak eta Nazio Batuen goi komisarioak eskatu diete gobernuari lehenbailehen aska ditzatela preso horiek, koronabirusaren pandemiak eragindako egoera larria dela eta. Horrekin batera, neurri horiek inongo salbuespen baldintzarik sortu gabe aplikatzeko ere eskatu dute.

OMSk gomendio horiek plazaratu zituenetik aste batzuk iragan badira ere, Espainiako Gobernuak ez du oraindik urratsik bat ere egin horiek betetzen hasteko. Gure ustez ez da egokia hala jokatzeko, eta epe ez oso luzean ondorio ikaragarriak izan ditzake.

Nafarroako herritar guztiei, instituzioei, eragile sozial, sindikal eta politikoei dei egiten diegu bat egin dezaten Espainiako Gobernuari honakoa exijitzearekin: lehenbailehen diseinatu eta gauzatu dezan espetxe politikaren arloko neurri plan bat, haren bidez betetzeko OMSk eta Europako Kontseiluko CPTk emandako gomendioak. Espainian gaur egun espetxe arloan indarrean dagoen legeriak tresna egokiak ditu presoak espetxeetatik modu kontrolatuan ateratzeko plan bat bideragarria izan dadin, Espetxeetako Erregelamenduaren 86.4 eta 100.2 artikuluetan jasotakoak, adibidez; horrek lasaitasuna ekarriko luke kartzelatarako eta aukera emango luke pandemia horietan

hedatzeak ekarriko lituzkeen ondorioei aurrea hartzeko.

Era berean, eskatzen dugu berma dadila presoek eta haien familiakoen eta gertukoek arteko komunikazioa, bideo konferentzien doako sistema abian jarri. Eskatzen dugu, halaber, presoek bisitak berriz has daitezela, eta, horretarako, beste espetxeetara joan-etorriak egitea baimendu beharko da, edo jatorritik gertuko kartzeletara ekarri preso nafar guztiak edo Nafarroan errotuta daudenak, gaur egun beste kartzela batzuetan preso daudenak, hala nahi badute. Nafarroako Parlamentuak berak gehiengo onartu izan ditu presoek urrunketa bertan behera uztearen aldeko zenbait ebazpen. Eta, azkenik, eskatzen dugu espetxe barruko jarduerak berriz ezar ditzatela, betiere osasuna babestuz eta bermatuz.

Egoera honetan borondate politikoak agintzen du, eta, orain inoiz baino gehiago, borondate politikoak herritar guztien osasunaren eta bizitzaren zerbitzuan egon behar du, baita presoek kasuan ere.

**2020ko apirilaren 22an**

**Salhaketa Nafarroa  
Ettxerat  
Altsasuko Gurasoak  
Sare Herritarra**



**#SOSPRESOAK**COVID19